



Inbentarioa

AURKEZPENA

Azken urteetan zehar, ***Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien Hiri-Plangintza Osoaren Inbentarioa*** argitaratu du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzaren bitartez. Bertan, udalerrri bakoitzaren plangintzaren izapidetze-egoera eta haren aldaketak kontsulta daitezke. Inbentario horrek harrera ona izan du lan-tresna gisa administrazioen eta profesionalen aldetik, hots, lurralde antolamenduaren, hirigintzaren, ingurumenaren edo azpiegituren eta eraikuntzaren exekuzioan jarduten dutenen aldetik.

Inbentario honi buruz aipatu beharreko kontuen artean, esan beharra dago Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen hainbat xedapen eta prozedura islatzen joan direla inbentario horretako datuetan; adibidez, 7.000 biztanletik gorako udalerriek behin betiko onespena ematen diote beren plangintza nagusiarri, eta hiri-antolamendurako plan nagusia udalerrien egiturazko hirigintza-antolamenduaren tresna bakarra bilakatu da. Bestalde, 2/2006 Legea aldatzeko den urriaren 2ko 2/2014 Legeak 7 urtez luzatu du 2/2006 Legea egokitzeko epea.

Ekonomia administratiboaren eta baliabideen mesedetan, zein egungo egoerara egokitzearen, informazioa internet bidez ematen da bakar-bakarrik. Informazio hori hiru hilean behin eguneratzen da.

Azkenik, azpimarratzekoa da tresna hori eguneratu egin dela, hainbat diziplina eta eremutan ahalik eta erabilgarrien izateko; eta asmo horrekin jarraitzen dugu lanean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urrian

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILBURUA

ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA